

45 Heineken JAZZALDIA
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
UZTAILA 22-27 JULIO 2008 WWW.JAZZALDIA.COM



Hizkuntza erabileraren neurketa
2008ko uztailan



Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea

Katalina Eleizegi 36, behea
20009 Donostia
Tel: 943 467181
bagera@bagera.net
idazkaritza@bagera.net

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1.1. Lan metodologia

2. Idatzizko materiala

2.1. Egitarau osatua

2.2. Prentsa oharra

2.3. Web orria

2.4. Jazzaldiko kartela

2.5. Orrialdeko egitaraua

2.6. Bestelakoak: Paisai linguistikoa,...

3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpenaren prentsaurrekoa

3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

3.3. Bestelakoak

4. Ondorioak

5. Prentsa oharra

1. Sarrera

1998. urtean BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta, orduz geroztik, urtero aztertu du musika jaialdia. BAGERAk Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldiak diren neurrian, ahozko hizkuntza erabilera, saioen aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan erabiltzen dena mugatzen da. Idatzizko materialean berriz, esku liburu, kartel, pasai linguistiko eta abar hartzen dugu kontutan.

Donostian egiten diren beste ekintza batzuetan bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntza aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua ezagutu asmoz.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute.

1.1. Lan metodologia

Denetara 9 lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabileraren eta idatzizko materiala aztertuz.

Behatzaile bakoitzarekin Jazzaldia hasi aurretik bildu gara eta egitaraua eskutan, bakoitza zein emanaldira joango den zehaztu dugu. Fitxa betetzeko argibideak eman dizkiegu eta Jazzaldia amaitutakoan, aipatutako fitxak bildu ditugu. Azkenik, bildutako datuekin txosten hau osatu dugu.

Ohar modura esan, txostenean bi eletan edo bi hizkuntzetan esaten denean, besterik zehaztu gabe, euskaraz eta gazteleraz esan nahi duela.

2. Idatzizko materiala

2.1. Jazzaldiaren egitarau osatua

Jazzaldiari buruzko informazioa luze zabalean azaltzen den liburuxka da. Musikari eta talde bakoitzaren berri ematen da. Aurtengo edizioak 83 orrialde ditu.

Azalean, 2008ko kartela azaltzen da. Data elebitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta Heineken 43. Jazzaldia jartzen du. Azken orrialdean iragarki bat ageri da, Heineken-ena eta gaztelera hutsean dago.

Sarrera elebitan idatzirik dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta hitzez hitzezko itzulpena da, euskaraz eta gazteleraz informazio bera azaltzen baita.

Liburuxka honetako atal desberdinetan egunez egun dauden ekitaldietan parte hartuko duten taldeei buruzko azalpenak datoz, informazio guztia elebitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Iragarkiekin ez da testuarekin bezala gertatzen eta gaztelera da hizkuntza nagusia, bai egitarau osatuaren liburuxkan, baita kalean edo jazzaldiaren guneetan topatutako edozein euskarritan.

Gaztelera hutsezko iragarkiak: (11)

- 2.or. Frigo
- 8.or. Kutxa
- 16.or. Cuadernos de Jazz
- 18.or. Fnac
- 22.or. Coca-cola
- 26.or. Mezzo
- 60.or. Cadena SER
- 62.or. Giroa
- 73.or. TSI TAO
- 79.or. Eusko Jaurlaritza (Jazz euskadi)
- 84.or. Heineken

Euskara hutsezko iragarkiak: (0)

Euskaraz eta gazteleraz dauden iragarkiak: (7)

- 4 or. Diario Vasco
- 10 or. Universal
- 12 or. Scoda auto
- 14.or. Jazzland

24.or. Quadrant Producciones (esaldi bakarria euskaraz)

78.or. Getxo jazz

27.or. Jazzaldia (Gaubira)

Hizkuntzarik gabekoak: (1)

20 or. Obegisa (Enpresaren izena gazteleraz dago eta helbidea euskaraz dute).

2.2. Prentsa oharra

BAGERAn, posta elektroniko bidez 71 mezu jaso ditugu; horietatik 66 elebitan, azken orduko zuzenketa bat gazteleraz eta 4 buletin (web orriko formatuan, mezua ireki eta lehenengo gaztelerazko bertsioa ikusi arren, bazen informazioa euskaraz jasotzeko aukera).

Behin betiko egitarauaren aurkezpenean banatutako materialean CD bat banatu zuten. Honek, Jazzaldiko bi kartelak, argazkiak, alkatearen agurra, artisten biografia, programa eta aldizkaria biltzen ditu, guztiak, euskaraz zein gazteleraz.

2.3. Web orria

www.jazzaldia.com helbidean sartuz gero, pantailan ageri den hizkuntza gaztelera da. Ondoren, euskara edo ingelesa aukera daiteke.

Web orritik bi Blogetara sar zaitezke, biak gazteleraz daude.

2.4. Jazzaldiko kartela

Aurtengo Jazzaldia iragartzeko kartelean, azaltzen den informazioa laburra bada ere, euskaraz eta gazteleraz dago.

2.5. Orrialdeko egitaraua

Orrialdeko egitarauan, datak, lekuak eta bestelako oharra bieleban daude, mapan izan ezik, non guneen izenak gazteleraz dauden.

2.6. Bestelakoak

Kursaaleko bi kuboaren artean dagoen plazatxoan, Heineken Karparen ondoan turismoko zenbait agertoki jarri ziren. Hauetan banatzen ziren euskarrietan edota karteleban ez guren euskarazko idatzirik topatu.

Publizitate panel digitala hizkuntzarik gabekoa zen, hau da, Jazzaldian parte hartutako musikari eta taldeen izenak irakur zitezkeen bakarrik. Ez zen iaz bezala, bestelako iragarkirik azaltzen.

Zurriolako hondartzako Agertoki Berdeari dagokionez bi aipamen; alde batetik, eszenatokiaren goiko aldean “Escenario Verde” irakur zitezkeen gazteleraz bakarrik, eta bestetik, eszenatoki erdian zegoen pantaila batean gauza desberdinak ikus zitezkeen; kontzertua eman behar zuen taldearen izena eta “Donostia 2016” kandidaturaren aurkezpen bideoa.



Kursaaleko gunean zehar, bide seinaleak zeuden guneko bakoitzera joateko norabidea erakutsiz. Seinale hauetan guneen izenak gazteleraz zeuden, kasu batean izan ezik Frigo gunea elebitan irakurri zitekeela.



Jazzaldiko dendan, salmentan zeuden gauzen izenen zerrenda elebitan irakurri zitezkeen. Hala ere, postuan, informazioa gazteleraz soilik irakur zitezkeen beste txartel batzuk ere bazeuden.

MERCHANDISING	
CAMISETAS	23€
CAMISETAS DE OTRAS EDICIONES	10€
BESTE URTEETAKO CAMISETAK	
CHAPAS	1,50€
CLAVOS	3€
CDs	4€
CDs	8€
CDs	1€
GUADERNOS	2,50€
GUADERNOS	
CARTELES	
KARTELES	
LIBRO (JAZZALDIA: 40 AÑOS)	20€
LIBRERIA (JAZZALDIA: 40 URTE)	



Karpa edo jaima bakoitzean zeuden ohar gehienak hiru eletan zeuden; salbuespen bat izan ezik tiketeretan, “un ticket = una ronda”, gazteleraz eta ingelesez bakarrik baitzegoen lelo nagusia, aurreko urteetan bezala.

Hondartzan botilak birziklatzeko kartelak gaztelera hutsean zeuden.



3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpenaren prentsaurrekoa.

Abenduaren 14an, Trinitateko lanak direla eta egin beharreko aldaketen berri emateko prentsaurrekoa egin zuten. Bertan, Miguel Martin, Jazzaldiko zuzendariak eta Odon Elorza, Donostiako alkateak hitz egin zuten, guztia gazteleraz.

Behin betiko egitarau ofizialaren aurkezpen prentsaurrekoa berriz, ekainaren 25ean, Victoria Eugeniako Klub aretoan izan zen. Aurkezpena, ondorengoek burutu zuten: Miguel Martin Heineken jazzaldiko zuzendaria, Odon Elorza Donostiako alkatea, Iñigo Ortega Jazzaldiko antolakuntza taldeko kidea, Jesus Torquemada Jazzaldiko prentsa arduraduna eta magoak.

Prentsaurrekoa hasi aurretik 3 mago egon ziren jendearen inguruan bere magia ikuskizuna eskaintzen. Hiruak gaztelera hutsez aritu ziren. Prentsaurrekoa Iñigo Ortega eta Miguel Martinen telefono arteko elkarrizketa batekin hasi zuten, hauek ere, gazteleraz. Ondoren, Miguel Martin eszenatokian azaldu zen mago batekin eta Jazzaldiko egitarau eta eszenatokien berri eman zuen, berriro ere, dena gazteleraz. Jarraian, Odon Elorzak hartu zuen hitza eta guztia gazteleraz egin zuen, “zorionak eta mila esker” izan ziren euskaraz esandako hitz bakarrak. Bere atzetik, Torquemada aritu zen spotaren berri emanaz, bieletan. Spota hizkuntza gabea izan zen. Azkenik, magoa aurkeztu zuen bieletan. Magoak bere ikuskizuna gaztelera hutsez egin zen.

Laburbilduz, alkatearen “*zorionak eta mila esker*” eta Torquemadaren aurkezpen laburrak izan ezik, dena gaztelera hutsean izan zen.

3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk

2008/VI/09 : Bertsoa & Jazza
2008/VI/11: Zientziaren Kutxaguneko instalazio musikala
2008/VII/10: Fnac . Ikus entzunekoa
2008/VII/17: Txosten antropologikoa .
2008/VII/18: Tokiko taldeen aurkezpena .
2008/VII/21: Jaques Rémusen Thermophones á Bascule
makinen aurkezpena
2008/VII/22, 23, 24: Artisten prentsa agerraldiak .

Prentsaurreko guztietan, gaztelera izan zen nagusi. Bertsoa & Jazza-ren aurkezpen prentsaurrekoa izan ezik, zeina bieletan izan zen. Besteetan, euskarak presentzia izan duenean, beti ere, apaingarri gisa izan da (hasierako aurkezpen laburra edota bukaerako agurra egitean). Beste hizkuntzaren bat erabili zenean, itzulpenak gazteleraz izan ziren.

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

Jazzaldiko kontzertuen aurkezpenak aurretik grabatutakoak izan ziren. Behatutako kontzertuen aurkezpenak bieletan izan ziren eta lehenbizi euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Uztailaren 23an, Zurriolako hondartzako Agertoki Berdean bi kontzertu ziren eskaintzekoak; Caravan Palace eta Pink Martini, 21:30etan eta 00:30etan hurrenez hurren. Arratsalde-iluntzean enbata sartu zen eta eszenatokian eragin zituen kalteen ondorioz kontzertuak bertan behera geratu behar izan ziren. Honen berri emateko oharra gaztelera hutsean eman zuten.

Uztailaren 23an bertan, 23:00tan Victoria Eugenia Antzokian Maceo Parkerr & WDR Big Band Köln kontzertua Espainiako RTVE enpresak grabatu zuen. Kontzertuaren hasieran, aipatu enpresako ordezkari bat taularatu zen eta besteak beste bere enpresak kontzertu hori grabatuko zuela ohartarazi zuen, gaztelera hutsean.

Uztailak 26an, 23:30etan Victoria Eugenia Antzokian Defunkt Millenium Project kontzertuaren aurkezpena bieletan izan zen baina besteetan ez bezala lehenik gazteleraz egin zuten.

3.3. Bestelakoak

Kurssaleko Auditorioan, Ganbera Aretoan zein Victoria Eugenia Antzokiko sarreretan zeuden langileen artean denetik topatu dugu, hala ere gehiengoak euskaraz erantzuteko gaitasuna erakutsi zuten.

Materialen dendetan, tiketeretan eta tabernetan, denetarik zegoen, batzuek euskaraz zekiten eta beste batzuk ez.

4. Ondorioak

Idatzizko hizkuntza

Idatzizko materialean, hau da, Jazzaldiaren egitarau osatuan, orrialdeko egitarauan, paisai linguistikoa, prentsa oharretan eta abar, elebitasuna nagusi da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Elebitan dauden testuak (euskaraz eta gaztelera), bata bestearen itzulpen literalak dira, eta beti, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita daude.

Hala ere, **urteroko hutsuneak** errepikatu dira:

- Egitarau osatuan eta oro har idatzizko materialean azaltzen diren iragarle etheen iragarki gehienak gaztelera hutsez daude. Hemeretzi iragarle etxe daude, horietatik hamaikak gaztelera bakarrik erabili dute euren iragarkietan. Iragarle etxeek emanaldietan erabili dituzten hainbat euskarri ere gaztelera hutsez zeuden. Iragarle etxe batzuk gaztelera soilik erabili izana kezkarria iruditu zaigu, adibidez; Jazz Euskadi, Kutxa, Eusko Jaurlaritza, ...

- Bageran, jasotako prentsa oharrak elebitan jaso ditugu, azken orduko ohar bat izan ezik.

- Web orriari dagokionez, aurten atzera pauso nabarmena ikusi dugu. Gaztelera baita lehenengo hizkuntza eta ondoren aukeratu behar da euskara edota ingelera. Blogak berriz, gaztelera hutsez daude.

- Paisai linguistikoa, gunetako seinaleak eta botilak zakarrontzira botatzeko oharrak gaztelera zeuden, eta, paneletan eta postuetan hainbat hutsune ikusi ditugu.

Ahozko hizkuntza

Ahozko hizkuntzari dagokionez, aurkezpenak egon diren gehienetan elebitasuna mantendu da. Lehenengo eta azken hitzak beti euskaraz izan dira eta hizkuntza bakoitzean informazio propioa landu da. Hala ere, azken ordukoak gertatzen direnean oharrak gaztelera hutsez ematen direla ohartu gara. Bestetik, prentsaurrekoetan euskararen erabilera oso urria izan da, baita udal ordezkariak izan direnean ere.

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra izan arren, oro har elebitasuna mantendu delako bai ekitaldien aurkezpenetan baita idatzizko materialean ere, **azken urteetan errepikatzen diren hutsuneez gain, akats berri batzuk ere egon dira**. Beraz, jazzaldiko antolatzaileak, gonbidatzen ditugu, urtean zehar landu beharrekoak landu ditzaten, web orria txukun jarri, paisai linguistikoak apaindu, prentsaurrekoen hutsunea nola hobetu aztertu eta iragarleekin egin beharreko aurrelana egin dezaten.

Azkenik, BAGERAk Jazzaldiko antolakuntzari eskerrak eman nahi dizkio gure lana egiteko ematen diguten laguntzarengatik eta aurrerantzean euskararen aldeko lanean laguntzeko prest izango gaituztela gogorarazi nahi diegu.

5. Prentsa oharra

URTEROKO HUTSUNEAK ERREPIKATU DIRA

BAGERAk, Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuenetik 10 urte igaro dira. Urte guzti hauetan, Jazzaldiaz gain Donostian burutzen diren beste hainbat jaialdi edo ekintza ezberdinetako hizkuntza erabilera nolakoa den ere neurtzen dugu. Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, horretarako, ezinbestekoa ikusten dugularik, hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskarak zor zaion lekua izatea.

Ospatu berri den Jazzaldian eginiko azterketaren emaitzak ikusirik, BAGERAk honela baloratzen du Jazzaldian euskarak izandako lekua:

Idatzizkoari dagokionez, hein handi batean, hizkuntzen erabilera orekatua izan dela esan daiteke, prentsa oharrek eta banatutako egitarauak bi eletan edota hiru eletan baitziren. Dena den, egitaraua bi eletan idatzita bazegoen ere, iragarleen artean gaztelera izan da nagusi: 18 iragarleetatik, 5ek egin dute bi eletan, 12k gaztelera hutsez eta batek hizkuntzarik gabe. Paisai linguistikoa ere urtero errepikatzen diren hutsuneak ikusi ditugu, besteak beste, guneetako geziak eta beste ohar batzuk gaztelera hutsean baitzeuden. Eta amaitzeko, ezin web orriarekin eman den atzera pausua aipatu gabe utzi. Iaz, jazzaldiko web orrialdean sartu ezker, lehenik eta behin, hizkuntza hautatzeko aukera zegoen, aurrez berriz, www.jazzaldia.com helbidean sartu eta lehen hizkuntza gaztelera izan da, euskaraz edo ingelesez irakurri ahal izateko aukeraketa ondoren egin behar delarik.

Ahozko erabilerari dagokionez, orokorrean aurkezpenetan, elebitasuna mantendu da, gehienetan euskarari lehentasuna emanez. Halere, izugarrizko hutsunea ikusten dugu, prentsaurrekoetan, euskararen presentzia oso urria baita. Euskaraz egiten denean, apaingarri gisa egiten dela dirudi, hau da, hasierako eta bukaerako agurrak egiteko besterik ez. Bestetik, aurrez prestatutako aurkezpena edo oharrik egin behar izan denean gaztelera egin da (adibidez, galernaren egunean eman ziren oharrek).

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra izan arren, oro har elebitasuna mantendu delako bai ekitaldien aurkezpenetan baita idatzizko materialean ere, **azken urteetan errepikatzen diren hutsuneez gain, akats berri batzuk ere egon dira**. Beraz, jazzaldiko antolatzaileak, gonbidatzen ditugu, urtean zehar landu beharrekoak landu ditzaten, web orria txukun jarri, paisai linguistikoa apaindu, prentsaurrekoen hutsunea nola hobetu aztertu eta iragarleekin egin beharreko aurrelana egin dezaten.

Azkenik, BAGERAk Jazzaldiko antolakuntzari eskerrak eman nahi dizkio gure lana egiteko ematen diguten laguntzarengatik eta aurrerantzean euskararen aldeko lanean laguntzeko prest izango gaituztela gogorarazi nahi diegu.